



# B:ATU

**BATU** eta eraldatu zure ingurunea





# NOR GARA?

B:ATUn hezkuntzatik jendartea eraldatzen lagundu nahi dugu, txikitatik **genero berdintasuna** eta zerikusia duten gaiak jorratuz.

Bestalde **jokoa** eraldaketarako tresna gisa ulertzen dugu, honen inpaktuan sinetsiz gure tailerrak sortzerako garaian. Horrela, tailer **dinamiko** eta **parte hartzaileak** sortuz.

4 KALITATEKO  
HEZIKETA



5 GENERO  
BERDINTASUNA





# METODOLOGIA

Jokoa eraldaketarako tresna gisa ulertzen dugu, honen inpaktuan sinetsiz gure tailerrak sortzerako garaian. Horrela, tailer dinamiko eta parte hartzaileak sortuz.

Horren bidez, gazteak pentsatzera eta gogoeta egitera bultzatzen ditugu eta aldi berean, disfrutatzeko espazioak sortuz.


Tailerrean zehar ikasleak dira protagonista, eta material zein helburuak adinaren arabera egokitzen dira.



**ELKARRIZKETA/  
DEBATEA**



**HAUSNARKETA**



**GAMIFIKAZIOA**





# GURE ESKAINTZA

Gazteentzako feminismoarekin lotutako tailerrak eskaintzen ditugu. Gure helburua, haur eta gazteak gai horiek ezagutarazten hastea eta kontzientzia piztea da. Gizartean ematen diren desberdintasunak erreproduzitu ez daitezen eta eskoletan denentzako espazio seguruak sortu daitezen.


4 tailer mota eskeintzen ditugu. Bakoitza, adin-tarte bati bideratuta dago, hurrengo taula dago adierazita.

Nik ere erreferenteak nahi ditut!

Estereotipo eta rol-ak


Nola eragiten digu matxismoak ikasgelan?

Botere harremanak



LH  
DBH





	Nik ere erreferenteak nahi ditut!	Estereotipo eta rol-ak	Nola eragiten digu matxismoak ikasgelan?	Botere harremanak
LH: 1. zikloa	✓			
LH: 2. zikloa	✓	✓		
LH: 3. Zikloa		✓	✓	
DBH: 1. zikloa		✓	✓	✓
DBH: 2. zikloa			✓	✓



# NIK ERE ERREFERENTEAK NAHI DITUT!

Haurtzaroan egin nahi duzun horretan erreferenteak edukitzea ezinbestekoa da. Baina askotan erreferente hauek estereotipoekin lotutakoak dira. Horregatik, hurrei mota guztietako erreferenteak eta pertsonak daudela erakustaraztea garrantzitsua da, bakarrik ez daudela ulertarazteko.

## **HELBURUAK:**

- Genero rol-ekin hausten duten jendea ezgutarazi.
- Bizi osoko erreferente maskulinoekin hautsi.
- Klasera datozen denak errepresentatuta sentitzea.
- Lorpenak lortu dituzten pertsona dibertsoak ezagutzea.





# ESTEREOTIPO ETA ROL-AK

Txikitatik esaten digute nor eta nola izan behar garen dugun sexuaren arabera (neska=arroxa, panpinak... mutila=urdina, futbola...). Bada garaia estereotipo, rol eta binarismo honekin hausteko. Beste sexu batekoa izango banintz, berdin heziko ninduten? Nolakoa izango nintzateke? Zaletasun berdinak edukiko al nituzke?

## HELBURUAK:

- Sexua eta generoaren arteko ezberdintasuna ulertzea.
- Genero bakoitzari ezartzen zaizkion rol-en inguruan gogoeta egitea eta hauekin haustea.
- Pertsona bakoitzak nahi duen bezela izan beharko lukeela ulertzea.
- Genero rol-ei aurre egiteko erremintak ezagutaraztea





# BOTERE HARREMANAK

Egunerokoan, edonon eta edonorekin presente dauden zerbait dira, eta ikasgelan ere islatzen dira. Pertsona batek duen boterea, pertsona horrek dituen ezaugarrien araberakoa izan ohi da (arrazza, generoa, orientazio sexuala...). Boterea beti daukagu inguruan edo eskuartean, baina garrantzitsuena ondo erabiltzea da.

## HELBURUAK:

- Botere harremana zer den ulertzea.
- Ematen diren adibide ezberdinak ulertu eta identifikatzea.
- Ikasgelan ematen diren egoerak identifikatzea.
- Botere honen aurrean nola jokatu behar dugu? Bai eskuartean dugunean edo eragiten digunean?





# NOLA ERAGITEN DU MATXISMOAK IKASGELAN?


Jarrera matxistak jendartean oso normalizatutak ditugu eta ikasgeletan ere nabarmenak dira. Horregatik, txikitatik ikaskideen artean ematen diren jarrera hauek identifikatu eta moztea garrantzitsua da.

## HELBURUAK:

- Normaltzat hartzen ditugun jarrera matxistak identifikatu eta kontzientzia piztea.
- Ikaskideei jarrera hauek nola eragiten dien bisibilizatzea.
- Egoera hauei nola aurre egin ikastea.







# AURREKONTUA

Tailerrak aurrera eramateko garaian, aurrez irakasleekin bilera bat egiten da, eta hortik ateratako edukien baitan tailerra egokitu egiten da, gai batzuk sakonago landuz eta/edo beste gai batzuk ez aipatuaz.

Aurrekontuak aurretik aipatutako bilera, tailerra egokitzea, **2 orduko** tailerra gauzatzea eta gastuak barne daramatza.

Tailer **bat**en prezioa:

- 355€

**Sei** tailerren prezioa:

- 1748€

Tailer kantitatearen arabera prezioa aldatu egin daiteke, tailer gehiago hartzeak, proportzionalki prezio merkeagoa edukiaz. **Tailer mota guztiek kostu berdina dute, hau da, kurtsoa edo edukia desberdina izanda ere, kostua bera da.** Normalean 2 orduko saioak egiten ditugu, baina hori eskolaren arabera egokitu daiteke.





**BATU**

**ETA ERALDATU**

**ZURE INGURUNEA**



**olatzaizpurua@batu.eus**



**www.batu.eus**



**Irun, Gipuzkoa**